# Pribatuen iragarpenak

**EUSKAL HERRIKO AURREZKI KUTXEN FEDERAZIOA**

IRAGARPENA, Federatutako Aurrezki Kutxen 1992ko abenduko aktiboaren eta pasiboaren errefe-rentziarako ehunekoak jakinarazten dituena. 967

# Xedapen Orokorrak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**399**

2/1994 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, unibertsitate mailakoak ez diren Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoen antolaketa eta iharduerarako arautegia prestatuko duen Batzordea osatzeko era finkatzen duen Dekretua aldatzen duena.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen aldibaterako xedapenetatik lehenengoaren bigarren idazatian agintzen denez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko du eskola komunitatearen sektore bakoitzak ikastetxeetan aukeratu behar dituen ordezkarien kopurua, Lege horrek indarra hartzen duenetik kontatzen hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan zehaztu ere; eta aukeraketa egin ondoren eta udal administrazioko ordezkariarekin batera, antolaketa eta ihardunbideari buruzko arautegia prestatuko dute ordezkariok.

Xedapen hori betetzeko, uztailaren 6ko 200/1993 Dekretua onartu zen. Dekretu horren ataletan, besteak beste, aipatutako batzordea osatuko duten kideen gutxiengoa arautzen da, baita ikastetxearen antolaketa eta iharduerarako arautegia egiteko eta onartzeko gehienezko epeak ere, hau da, 1994ko otsailaren 1a eta 1994ko martxoaren 1a, hurrenez hurren.

Hiru arrazoi izan dira uztailaren 6ko 200/1993 Dekretua aldatzeko. Alde batetik, delako batzorde hori osatu behar duten alderdietakoren batek edo gehiagok ordezkaririk aukeratzen ez duten kasuetarako ez da inolako araurik finkatu; beraz, hutsune hori oraingoan konpontzen da 3. atalari hirugarren idazatia gehituta. Bestalde, 200/1993 Dekretuaren 10. atalean aipatzen

# Anuncios Particulares

**FEDERACION DE CAJAS DE AHORROS VASCO-NAVARRAS**

ANUNCIO de los tipos de referencia de Activo y Pasivo de las Cajas de Ahorros Confederadas, correspondiente al mes de diciembre de 1993. 967

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION**

**399**

DECRETO 2/1994, de 18 de enero, de modificación del Decreto por el que se determina la composición de la Comisión de elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Disposición Transitoria Primera de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, preceptúa en su apartado segundo que en el plazo de tres meses de su entrada en vigor, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación concretará el número de representantes que deban ser elegidos en los centros por cada sector de la comunidad escolar, y que una vez elegidos y junto con un representante de la Administración municipal respectiva procederán de inmediato a elaborar el reglamento de organización y funcionamiento del centro.

En aplicación de dicha Disposición se aprobó el Decreto 200/1993, de 6 de julio, en cuyo articulado, entre otros aspectos, se regula la composición mínima de la citada Comisión así como los plazos máximos tanto para la elaboración del mencionado reglamento de organización y funcionamiento (1 de febrero de 1994) como para su aprobación (1 de marzo de 1994).

Tres son las razones que motivan la modificación del Decreto 200/1993, de 6 de julio. De un lado la carencia en su articulado de una previsión en el caso de que alguno o algunos de los sectores llamados a componer esa Comisión no procedan a la elección de sus representantes, que se suple adicionando un nuevo apartado tercero al actual artículo 3. De otro lado, y dada la recien-

diren ereduak oraindik oraintsu bidali direnez ikastetxeetara, irakaskuntzan dihardutenen iradokizunez, komenigarritzat jotzen da aipatutako antolaketa eta iharduerarako arautegia egin eta onartzeko gehienezko epeak hilabetez luzatzea, berehala egiteko agindua ematen duen Legearen aurka jarri gabe; beraz, Dekretuaren 6 eta 7. atalak ere aldatu egiten dira zati batean bada ere. Azkenik, 8. atalean, behin arautegiak onartu eta gero, horiek Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikora bidaltzeko gehienezko epea sartzen da.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Unibertsitate mailakoak ez diren Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoen antolaketa eta iharduerarako arautegia prestatuko duen Batzordearen osakera zehazten duen uztailaren 6ko 200/1993 Dekretuaren 3. atalari 3. idazatia gehitu zaio. Honela dio horrek:

«3.– Irakaskuntzan diharduten alderdietakoren batek edo gehiagok, bertako kideei egotzi dakizkien arrazoiak medio, ordezkaririk aukeratzen ez badute, egoera horrek ez du eragotziko ikastetxe bakoitzaren Antolaketa eta Iharduerarako Arautegia egiteko Batzordea balio osoz eratzerik.»

*2. atala.–* Unibertsitate mailakoak ez diren Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoen antolaketa eta iharduerarako arautegia prestatuko duen Batzordearen osakera zehazten duen uztailaren 6ko 200/1993 Dekretuaren 6. atalaren lehenengo lerroaldia aldatu egin da. Honela dio horrek:

«Dekretu honetan ezartzen den Batzordeak 1994ko martxoaren 1a baino lehenago amaitu beharko du Ikastetxearen Antolaketa eta Iharduerarako Arautegia.»

*3. atala.–* Unibertsitate mailakoak ez diren Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoen antolaketa eta iharduerarako arautegia prestatuko duen Batzordearen osakera zehazten duen uztailaren 6ko 200/1993 Dekretuaren 7. atala aldatu egin da. Honela dio horrek:

«*7. atala.–* Eskola Kontseiluak edo gaurregun ihardunean dagoen horren antzeko gobernu-organoak onartu beharko du antolaketa eta iharduerarako arautegia; nolanahi ere, 1994ko apirilaren 1a baino lehen onartu beharko du.»

*4. atala.–* Unibertsitate mailakoak ez diren Euskal Autonomi Elkarteko ikastetxe publikoen antolaketa eta iharduerarako arautegia prestatuko duen Batzordearen osakera zehazten duen uztailaren 6ko 200/1993 Dekretuaren 8. atala aldatu egin da. Honela dio horrek:

te remisión a los centros de los modelos a que hace referencia el artículo 10 del Decreto 200/1993, se ha considerado conveniente, y ello a instancias de la comunidad educativa, sin menoscabo del requisito de inmediatez exigido por la Ley, ampliar en un mes los plazos máximos para la elaboración y aprobación del citado reglamento de organización y funcionamiento, lo que obliga así mismo a modificar parcialmente los artículos 6 y 7 del mismo. Por último, se introduce en el artículo 8 un plazo máximo para la remisión de los Reglamentos, una vez estos aprobados, a la Inspección Técnica Educativa.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de enero de 1994,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Se adiciona un apartado 3 al artículo 3 del Decreto 200/1993, de 6 de julio, por el que se determina la composición de la Comisión de elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con la siguiente redacción:

«3.– La no elección de sus representantes por parte de alguno o algunos de los sectores de la comunidad educativa, por causas imputables a sus miembros, no impedirá la válida constitución de la Comisión para la elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Centro.»

*Artículo 2.–* Se modifica el primer párrafo del artículo 6 del Decreto 200/1993, de 6 de julio, por el que se determina la composición de la Comisión de elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado como sigue:

«La Comisión que establece el presente Decreto deberá finalizar la elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Centro antes del día 1 de marzo de 1994.»

*Artículo 3.–* Se modifica el artículo 7 del Decreto 200/1993, de 6 de julio, por el que se determina la composición de la Comisión de elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado como sigue:

«*Artículo 7.–* La aprobación del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Centro corresponde al Consejo Escolar u órgano análogo de gobierno actualmente en funcionamiento. Esta aprobación deberá producirse, en todo caso, antes del día 1 de abril de 1994.»

*Artículo 4.–* Se modifica el artículo 8 del Decreto 200/1993, de 6 de julio, por el que se determina la composición de la Comisión de elaboración del Reglamento de Organización y Funcionamiento de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que queda redactado como sigue:

*«8. atala.–* Eskola Kontseiluak edo horren antzeko gobernu-organoak antolaketa eta iharduerarako arautegia onartu ondoren, 1994ko apirilaren 5a baino lehenago bidaliko dio hori Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko Zerbitzuari; arautegi horren eragina izan dezaketen gaiak arautzen dituzten xedapenekin bat datorren edo ez ebatzi beharko du zerbitzu horrek.»

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari ahalmena ematen zaio, ba, Dekretu honen garapen eta ezarpen zuzena egiteko beharrezko xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko urtarrilak 18.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
FERNANDO BUESA BLANCO.

*«Artículo 8.–* Una vez aprobado el Reglamento de Organización y Funcionamiento por el Consejo Escolar u órgano análogo de gobierno, será remitido al servicio de Inspección Técnica Educativa antes del día 5 de abril de 1994, a fin de que ésta dictamine sobre la conformidad del mismo con las disposiciones normativas que regulan las materias en las que pueda incidir.»

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para el correcto desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 1994.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
FERNANDO BUESA BLANCO.

# Agintariak eta Langilegoa

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### SOPELANAKO UDALA

**400**

ERABAKIA, 1993ko abenduaren 23koa, Sopelanako Udalarena (Bizkaia), administrazio orokorreko administrari baten izendapena argitaratzen duena.

1993ko abenduaren 23an Alkatetzak hartutako erabakiaren bidez eta epaimahaiaren proposamenari jarraituz, Nekane Elorriaga Artolozaga andrea, 16.043.319 NAN zenbakia duena, administrazio orokorreko eskalako administrari azpieskalako karrerako funtzionari izendatu dela argitaratzen da.

Eta dagozkion ondorioak sor ditzan argitaratzen da, argitaratu.

Sopelana, 1993ko abenduak 23.

ALKATEA.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### AYUNTAMIENTO DE SOPELANA

**400**

RESOLUCION de 23 de diciembre de 1993, del Ayuntamiento de Sopelana (Bizkaia), por la que se hace público el nombramiento de un Administrativo de Administración General.

Se hace público que, mediante Resolución de la Alcaldía de fecha 23 de diciembre de 1993 y a propuesta del Tribunal Calificador se ha nombrado a Dña. Nekane Elorriaga Artolozaga, con D.N.I. número 16.043.319 Funcionario de Carrera perteneciente a la Subescala Administrativa de la Escala de Administración General.

Lo que se hace público a los efectos procedentes.

Sopelana, a 23 de diciembre de 1993.

EL ALCALDE.